

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ANGOSTINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2021eko ordainagiriak**

Egin da Angostinan etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa 2021ean ordaindu behar dutenen errolda, eta jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliorduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, interesdunek aukera izan dezaten hura aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Angostinako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek erroldan jasotako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiteko funtzioa betetzen du, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu ondorengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko kobrantza epea 2021eko urriaren 22tik azaroaren 22ra izango da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2021eko azaroaren 22an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Angostinako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Angostina, 2021eko irailaren 14a

*Lehendakaria*

**ROBERTO SÁEZ ALBAINA**